

# MENDEKOTASUN, DESGAITASUN, BAZTERKETA EDO BABESGABETASUN EGOEREN BALORAZIOA

Garrantzitsua

**Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.**

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

## CREA CONTENIDO RICO CON BLOQUES Y PATRONES

**Herritar guztiak > Zerbitzuei buruzko informazioa eta nola eskuratu**

Fitxa laburtua kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio osoa.](#)

### Norentzat

**Mendekotasun, desgaitasun, bazterketa edo babesgabetasun-egoeran** dagoen edozein pertsona.

### Kostua

**Doako zerbitzua.**

### Baldintzak

**Erroldatzea** (adingabeak izan ezik).

**Premia** zantzuak.

### Zertan datza?

Balorazio-, diagnostiko- eta orientazio-zerbitzuak mendekotasun-, desgaitasun-, bazterkeria- edo babesgabetasun-egoeraren balorazioa egiten du. Hortik abiatuta, zerbitzu edo prestazio ekonomikora bideratzen ditu eskatzaileak, edo bien konbinaziora, beren beharrei hobeto erantzuteko.

## Norentzat?

Zerbitzua edonori zuzenduta dago, adin mugarik gabe, betiere **mendekotasun, desgaitasun, bazterketa edo babesgabetasun egoera** bat badago.

## Zenbat balio du zerbitzuak?

**Doako** zerbitzua da.

## Zer baldintza bete behar ditut eskatzeko?

**Balorazioa eskatzen den udalerrian erroldatuta egotea** (babesik gabeko adingabeen kasuan izan ezik).

**Mendekotasun, desgaitasun, babesgabetasun edo bazterkeria-egoeran egotearen zantzuak** izatea.

## Non eska dezaket zerbitzua?

Zure auzo, udalerrri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan**.

[Kontsultatu informazio osoa](#)